

2006ko urtarrilaren 24an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.005EKO ABENDUAREN 20KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- 2.006KO AURREKONTUAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 5.-2.006KO PLANTILA ORGANIKO ETA UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ONARPENAK.
- 6.- EGUTEGI LABORALAREN AZTERKETA.
- 7.-ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEKO URBANIZAZIO PROIEKTUARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA , BIDEZKOA BADA.
- 8.-ADUNAKO 3.AREAKO 3.2 HIRIGINTZ EXEKUZIOZKO UNITATEARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 9.-ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEAN 16 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO LURRA-REN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 10.-ADUNAKO H.I.B 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZAK ADJUDIKATZEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA.
- 11.-ADUNAKO UDALERRIAN KUTXAZAIN BAT JARTZEKO KUTXAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 12.- UDAL ATERPETXEAREN ETA TABERNA JATETXEAREN USTIAPEN ESKUBIDEA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTU DUTEN BALDINTZEN ARABERA JARRITAKO ABALARI BURUZ HARTU BEHARREKO ERABAKIA.
- 13.- INPRESORA BATEN EROSKETA.
- 14.- ORDENADORE BATEN EROSKETA.
- 15.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 16.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 17.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 18.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko urtarrilak 19.

ALKATEA.

2.006KO URTARRILAK 24.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Antton Artola Ibareguren.
Javier Zabala Zabala.
Miren Aburuza Alkorta.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko urtarrilaren hogeita lauko hogeita bat ordu eta hamabost minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.005EKO ABENDUAREN 20KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2005eko abenduaren 20ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Leandro Galatas Bengoetxeari Jaunari Etxeberri baserriko lurretan dauden karabanak kentzeko jakinerazpena (128/2005 Alkatetza Ebazpena).

2.- Ramiro Dos Santos Regada Jaunari Etxeberri baserriko sailetan erroldatzeko eskaera ezestea (1/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Juan Jose Arregui Echabe eta bere emaztea den Maria Teresa Ormaechea Esnaola Jaun/ Andreei 209,57 m2 segregatzeko baimena (2/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Iñaki Ayerbe Izaguirreri EYDIMEN 2000-ren izenean Ibaiondo Industriguneko 7.pabiloian goratze-makinaria erreparatzeko tramitatzen ari den iharduera legeztatzeko espedienteari hasera ematea (3/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Miguel Maria Otegui Arrillaga Jaunari Uparan Industriguneko 1.zenbakian aluminiozko sulfato eta polisulfatoa fabrikatzeko iharduera martxan jartzeko hirigintz galderaren erantzuna (4/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Jon Aizpurua Iraola Jaunari Pagoa baserriko lursailetan ardi batzuentzatt estalpea egiteko eskaeraren erantzuna (5/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Vicente Ubillos Jauregui Jaunari 66,00 m2 segregatzeko baimena (6/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Alvaro Cifredo Martín Jaunari Cave Bilbainos Logística España, S.L.-ren izenean Urtaki Industriguneko 42.zenbakian iharduera martxan jartzeari buruzko jakinerazpena (7/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Pedro Rodriguez Lería Jaunari ROMEN, S.L.-ren izenean Uparan Industriguneko 7.zenbakian kokaturik dagoen pabiloian obrak egiteko baimena (8/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Jose Antonio Aguirre Arreguiren izenean dagoen 1865-CSB ibilgailuaren exentzioa onartzea (9/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Iñaki Gorostidi Jaunari Apakintza baserriaren ondoan duen txabolako eranskinaren inguruko jakinerazpena (10/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Juan Jose Aburuza Jaunari lur mugimenduen inguruko jakinerazpena (11/2006 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

**LAUGARREN PUNTUA:
2.006KO AURREKONTUAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2006ko aurrekontuaren proposamena egiten du eta adierazten du aurrekontua 1.386.900 €-takoa dela. Aurrekontua aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez zera erabaki du:

1.- 2.006ko aurrekontuari haserako onarpena ematea. Aurrekontuaren laburpena kapituloka honako hau da:

SARRERAK.

| | | |
|---------|-------------------------------------|------------------|
| I KAP | ZUZENEKO ZERGAK | 251.100 |
| II KAP | ZEHARKAKO ZERGAK | 150.000 |
| III KAP | TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK | 92.800 |
| IV KAP | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 296.400 |
| V KAP | ONDARE SARRERAK | 9.000 |
| VI KAP | INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZEA | 510.000 |
| VII KAP | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 77.600 |
| | GUZTIRA | 1.386.900 |

GASTUAK

| | | |
|--------|---|---------|
| I KAP | PERTSONAL GASTUAK | 203.900 |
| II KAP | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 207.950 |

| | | |
|---------|-------------------------|------------------|
| III KAP | FINANTZA GASTUAK | 26.000 |
| IV KAP | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 88.850 |
| VI KAP | INBERTSIO ERREALAK | 725.200 |
| VII KAP | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 37.000 |
| IX KAP | FINANTZA PASIBOAK | 98.000 |
| | GUZTIRA | 1.386.900 |

2.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aipatzen dena beteaz, jendeaurreko informaziora jartzea, Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lanegunetik hasi eta hamabost laneguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

BOSTGARREN PUNTUA:
2.006KO PLANTILA ORGANIKO ETA UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ONARPENAK.

Urtero bezela, aurrekontuarekin batera, Udaletxeko plantila organikoa eta udal lanpostu zerrendak onartu behar dira.

Eta ikusirik Idazkari-Kontuhartzailearen lanpostua A eta B taldeetan finkatzen dela, Adunako kasuan A taldekoa izango da, bertan dagoen pertsona A taldekoa (lizentziatua) delarik, guzti hau 834/2003 eta 522/2005 Errege Dekretuek arautzen dutena beteaz, 2006. ekitaldirako Alkateak honako hauek izatea proposatzen du:

PLANTILA ORGANIKOA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea.

Lanpostuak-1
 Taldea-A
 Egoera-H
 Efalebae maila-19
 Oharra: %100eko dedikazioa.

2.- Administrazio Orokorreko Administraria.

Lanpostuak-1

Taldea-C
Egoera-J
Efalebae maila-13

3.- Aguazila.

Lanpostuak-1
Taldea-E
Egoera-F
Efalebae maila-8

4.- Garbitzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-E
Egoera-F
Efalebae maila-7
Oharra: %75eko dedikazioa.

UDAL LANPOSTU ZERRENDA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea:

Eskala- Estatuko gaitasuna.
Azpieskala- Idazkaritza-Kontuhartzaitetza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-A
Maila-19
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 4^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Z/E/S Dp +1
Hornitzeko sistema- lehiaketa-oposizioa.

2.- Administraria:

Eskala- Administrazio Orokorra
Azpieskala- Administrarritza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-C

Maila-13
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 3^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Goi Mailako Batxilergoa
Hornitzeko sistema- lehiaketa

3.- Aguazila:

Izaera- Laborala
Taldea-E
Maila-8
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigortasun data- 1994-12-31
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria+1

4.- Garbitzailea:

Izaera- Laborala
Taldea-E
Maila-7
Dedikazioa- %75
Hizkuntz eskakizuna- 1^a
Derrigoratsun data- 1994-12-31
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria+1

Plantila eta lanpostu zerrenda botutara jarriaz, aho batez, onartzen dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartzen da, jendeaurrean egoten den epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

SEIGARREN PUNTUA:
EGUTEGI LABORALAREN AZTERKETA.

Kontuan izanik gaurko datan 2.006 urterako Administrazio Lokaleko langileen baldintzak erregulatzeko hitzarmena onartu gabe dagoela eta beti ere 2005eko hitzarmena

kontuan izanik, Udaltzako, 2.006 urterako ondoren aipatzen den egutegi laborala aho batez onartu du:

1.- Urte osoko 1.592 lan orduak eta bere laneko portzentaia kontuan izanik, langile bakoitzak dagozkion orduak sartzea eta hitzarmenaren arabera oporrak egitea.

2.- Uztailak 24 eta abuztuak 14 zubiak egitea.

3.- Eusko Jaurlaritzak 2006 urterako eta Udaletxeak festa lokal bezela (abuztuak 16) jarritako egunak jai egitea.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEKO URBANIZAZIO PROIEKTUARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA , BIDEZKOA BADA

Adunako Udalak sustatu, 2.005eko urriaren 20ko Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bisatu eta Miguel Angel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek erredaktaturiko Adunako Arau Subsidiarioetako H.I.B 1.5-6 unitateko Urbanizazio Proiektuari haserako onarpena eman ondoren, jendeurrean egon den epean alegaziorik ez denez izan, Udaltzako, aho batez, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3 atalak agindutako legezko kideen kopuruarekin, Adunako H.I.B. 1.5-6 unitateko urbanizazio proiektuari behin betiko onarpena ematea erabaki du, Boletinean argitaratzea eta Planeamentu Erregelamentuaren arabera, expediente honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA:

ADUNAKO 3.AREAKO 3.2 HIRIGINTZ EXEKUZIOZKO UNITATEARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Jokin Izagirre Zabalak sustatu eta Fernando Carazo Amundarain Arkitektoak erredaktaturiko Adunako Arau Subsidiarioetako 3.aren 3.2 Hirigintz Exekuziozko Unitateari dagokion Hirigintz Proiektuari haserako onarpena eman ondoren, jendeurrean egon den epean alegaziorik ez denez izan, Udaltzako, aho batez, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3 atalak agindutako legezko kideen kopuruarekin, Adunako Arau Subsidiarioetako 3.aren 3.2 Hirigintz Exekuziozko Unitateari dagokion Hirigintz Proiektuari behin betiko onarpena ematea erabaki du,

Boletinean argitaratzea eta Planeamentu Erregelamentuaren arabera, expediente honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

Aldi beren eta Udal Ordenantzak xedatutakoarekin bat, lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko legeak exigitutako hirigintza lizentziak emateagatik, Urbanizazio Proiektuen kasuan, 2.300 €. ordaindu beharko da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA:
**ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEAN 16 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO LURRA-
REN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Adunako Udalak 2.005eko azaroaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Adunako H.I.B. 1.5-6 unitatean 16 etxebizitza eraikitzeoko lurra adjudikatzeko lehiaketa ireki bat egitea onartu zuen (G.A.O. 2005-12-09).

Esleipenerako lehiaketa honetan honakoak aurkeztu ziren:

- 1.- Manuel Echaide, S.L. (sarrera zk 8).
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L. (sarrera zk.9).
- 3.- Guillermo Ibarгойen, S.A.(sarrera zk 10).
- 4.- Construcciones Trati, S.L. (sarrera zk.11).

Pliken irekitze ekitaldia, 2.006ko urtarrilaren 17an egin zen, Arantza Aburuza Alkorta Anderea lehendakari gisa, Javier Zabala Zabala zinegotzi gisa eta Maria Etxeberria Urretabizkaia anderea idazkari gisa aritu zirelarik.

Ekitaldi honetara Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L., Guillermo Ibarгойen eta Construcciones Trati, S.L. bertaratu ziren.

Ekitaldiko lehendakariak aurkeztutakoen dokumentazioko 1. eta 2. gutunazalak egokitatzat jo zituen.

Ondoren, proposamen ekonomikoen pliak ireki ziren:

- 1.- Manuel Echaide, S.L: 147.860,00 € (BEZa barneratu gabe).
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L: 145.000,00 € (BEZa barneratu gabe).
- 3.- Guillermo Ibarгойen, S.A: 148.465,00 € (BEZa barneratu gabe).
- 4.- Construcciones Trati, S.L: 143.600,00 € (BEZa barneratu gabe).

Pliken irekitzea egin eta gero, 2.006ko urtarrilaren 24an Kontratazio Mahaia bildu zen, Alkatea den Arantza Aburuza Alkorta, Udaleko aparejadorea den Javier Santos Solis, Udaleko zinegotziak diren Antton Artola Ibaguren eta Javier Zabala Zabala, Udaleko Aholkularia den Pilar Del Valle eta Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den Maria Etxeberria Urretabizkaiaren partaidetzarekin eta ondorengo erabakiak hartu zituen:

Eskarmentu profesionalari (aurkeztutako dokumentazioaren arabera) dagokien puntuaketa:

- 1.- Manuel Echaide, S.L: 45 puntu.
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L: 45 puntu
- 3.- Guillermo Ibagoyen, S.A: 45 puntu.
- 4.- Construcciones Trati, S.L: 45 puntu.

Proposamen ekonomikoei dagokien puntuaketa:

- 1.- Manuel Echaide, S.L: 4,3 puntu.
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L: 10 puntu.
- 3.- Guillermo Ibagoyen, S.A: 3,1 puntu.
- 4.- Construcciones Trati, S.L: 12,8 puntu.

Materialei dagokien puntuaketa:

- 1.- Manuel Echaide, S.L: 0 puntu.
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L: 0,4 puntu.
- 3.- Guillermo Ibagoyen, S.A: 0 puntu.
- 4.- Construcciones Trati, S.L: 0 puntu.

Guztira (eskarmentu profesionalari, proposamen ekonomiko eta materialei dagokien guztizko puntuaketa):

- 1.- Manuel Echaide, S.L: 49,3 puntu.
- 2.- Eguzki Eraikuntzak, Construcciones Goñi, S.L: 55,4 puntu.
- 3.- Guillermo Ibagoyen, S.A: 48,1 puntu.
- 4.- Construcciones Trati, S.L: 57,8 puntu.

Beraz, aurkezturiko proposamenak aztertu eta Kontratazio Mahaiaren proposamena kontuan izan ondoren, Udalbatzak, aho batez, CONSTRUCCIONES TRATI, S.L.ri adjudikatzea erabaki du ehun eta berrogeita hiru mila eta seirehun euro (143.600,00 €),

BEZa barneratu gabe, baldintza pleguen eta berak aurkezturiko proposamenaren arabera. Eta aldi berean, Alkateari baimena ematen zaio H.I.B. 1.5-6 unitatean 16 etxebizitza

eraikitzeko lurraren adjudikaziodun den CONSTRUCCIONES TRATI, S.L.-rekin kontratua eta eskriturak sinatzeko.

HAMARGARREN PUNTUA:

ADUNAKO H.I.B 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZAK ADJUDIKATZEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA.

Alkateak H.I.B 1.5-6 unitatean eraiki behar dituzten etxebizitzak adjudikatzeoko baldintza pleguen berri ematen du eta Udalbatzak, aho batez, plegu hauek onartzea erabaki du. Ondorioz, pleguak Boletinean argitaratzea eta Ediktu Oholean jartzea erabakitzen da.

HAMAIKAGARREN PUNTUA:

ADUNAKO UDALERRIAN KUTXAZAIN BAT JARTZEKO KUTXAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Oraingoz mahai gainean geratzen da.

HAMABIGARREN PUNTUA:

UDAL ATERPETXEAREN ETA TABERNA JATETXEAREN USTIAPEN ESKUBIDEA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTU DUTEN BALDINTZEN ARABERA JARRITAKO ABALARI BURUZ HARTU BEHARREKO ERABAKIA.

2.004ko abenduaren 14an egindako Udalbatzan, Udal aterpetxearen eta taberna jatetxearen ustiapen eskubidea Maria Pilar Cortajarena Sorarrain eta Asier Aizpurua Sanz Jaun Andereei 10 urtetarako adjudikatzea erabaki zen. Lehiaketa arautu zuen baldintzen arabera, 6.048 €-tako abala Udaletxean ezarri behar zuten. Udaletxearekin hitzegin ondoren, abala 2.005eko urtarrilaren 14an 2 urtetarako bakarrik jarri zuten, beranduxeago 10 urtetarako jartzeko baldintzarekin. 2.006ko urtarrilaren 17an, pleguetan aipatzen denarekin bat, 6.000 €-tako abala 10 urterako jarri zuten. Eta ondorioz, Udalak azkena jarritako abala onartzea eta 2.005eko urtarrilaren 14an jarritako abala itzultzea erabaki du.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA:

INPRESORA BATEN EROSKETA.

Oraingoz mahai gainean geratzen da.

**HAMALAU GARREN PUNTUA:
ORDENADORE BATEN EROSKETA.**

Oraingoz mahai gainean geratzen da.

**HAMABOST GARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Ikusirik 2.005eko apirilaren 11an Tolosaldeko Hitzak 2.005 urterako dirulaguntza eskaera aurkeztu duela eta beraiek aurkezturiko dokumentazioaren arabera aplikatu duten kriterioan oinarrituaz, hau da, biztanleko 3 €-tako laguntza eskatzearena, Udalbatzak, aho batez, 1.056,00 €-tako laguntza ematea erabaki du.

2.- Ikusirik 2.005eko abenduaren 12an Pau Bilbao Sarria Jaunak Hizkuntz eskubideen Behatokiaren izenean Hizkuntz Eskubideen Behatokia diru laguntzeko 89 €-tako dirulaguntza eskaera aurkeztu duela, Udalbatzak, aho batez 89 €-tako laguntza ematea erabaki du.

3.- Ayúdale Caminar: ez da dirulaguntzarik onartzen.

4.- Ikusirik D ereduko ikastetxe publikoak biltzen dituen Sortzen- Ikasbatuaz Federazioak urtero Nafarroan antolatzen duen festarako eskaturiko dirulaguntza, Udalbatzak, bertaratutako zazpi zinegotzien hiruen adostasun eta lauen ezezkoarekin, dirulaguntzarik ez ematea erabaki du.

**HAMASEI GARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.-Manuel Echaide, S.L.-k Adunako bi rotondetan egindako lanengatik aurkezturiko 6.485,11 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- MBE SOTKON-ek 2.005 urteko kontenedoreen garbiketa eta mantenuerako aurkezturiko 3.074,96 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

3.- Gabriel Sarasola Alcain Jaunak Arrauzitzabal eta Lepasoroaldea mendietan egindako lanengatik aurkezturiko 10.187,70 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

**HAMAZAZPIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru ordu eta berrogeita hamabost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.